

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Turismoko Zuzendaritza Nagusia autokarabanez "gelditzeko eta aparkatzeko eremu"-ak nola erabiltzen dituzten egiaztatzen ari da

*Nafarroan kanpatzea kanpinetan bakarrik egin daitekeela gogorarazi du*

Osteguna, 2016.eko abuztuak 18

Nafarroako Gobernuaren Turismo eta Merkataritzako Zuzendaritza Nagusiak, Foruzaingoarekin lankidetzan, autokarabanez eta iragaitzazko antzeko ibilgailuek Foru Komunitatean dauden "gelditzeko eta aparkatzeko 23 eremu"-ak nola erabiltzen dituzten egiaztatzen ari da.

Autobide eta hiriguneetako zerbitzuguneetan bereziki kokatuta, gehienez ere 48 ordu arteko atsedena errazten dute, tarifa baten truke oro har.

Nolanahi ere, debekatuta dago bertan kanpatzea. Hori eginez gero, Turismoko Zuzendaritza Nagusiak gogorarazten du behar bezala erregistratutako "kanpin"-etara jo behar dela. Horri, laster Foru Komunitatean laster "[harrera eta kanpatzeko eremu](#)"-ak gehituko zaizkio, Turismora dagoeneko 2014an [sortu](#)tako formula baterako lehen baimen-eskaerak iritsi baitira; haren bidez, 48 orduz kanpatu daiteke, gehienez ere. Gogora ekarri behar da, Zirkulazio Kodeak prestatutako guneetatik kanpo jartzea debekatzen duela.

Aparkatzeko eta gelditzeko 23 eremuak zer erabilera ematen ari zaien zehatz-mehatz jakiteko, foruzainak puntu horietan autokarabanez aparkatuta daudela eta ez kanpatuta egiaztatzen ari dira.

Autokarabana bat aparkatuta dago baina ez kanpatuta, baldin eta:

- Lurzorua gurplekin ukitzen badu (egonkortzeko hankak ez daude jaitzita, eta ezta beste edozein tresna ere). Zenbaitetan, aparkalekua aldapan edo alboko inklinazio handian dagoenean, gurpil-altxagarriak justifikatuta egon daitezke ibilgailuaren segurtasuna hobetze aldera.

- Autokarabana itxia baino espazio handiagoa okupatzen ez badu eta aparkalekuko zorura aulkiak, mahaiak, zabalduetako toloak eta abar atera ez badira.

- Inolako fluidorik isuri ez bada, kutsagarria edo ez, motorraren errektuzaren berarenak salbu ihes-hodiaren bidez, edo gizabidezkoak ez diren edota osasungaitzak diren jokabideak badaude, bide publikoan ura botatzea, adibidez. Zarata gogaikarrik ez du ateratzen, atsedean hartzeko ordutegian sorgailu elektriko bat abian jartzea, esaterako, edo egunez gehiegi irauten duen denbora-tarteetan.

### 23 eremuak

Gelditzeko eta aparkatzeko Nafarroan dauden 23 eremuak edo "zerbitzu edo harrera"-koak izenekoak errepideen eta gaitasun handiko bideen alboan daude, baita hiriguneetan ere; azken horiek, gehienak, udalek sustatutakoak, Trafikoko Jarraibideen eta Udal Ordenantzen babesean eta beraren eskumenen esparruan.

Zenbait kasutan, ur grisak eta beltzak ebakutzeko puntuak izan ohi dituzte, edateko uraren hargunea, edo birkarga elektrikorako entxufeak, tarifa baten truke.

Honako toki hauetan daude: Almandoz, Amaiur, Arguedas, Arizkun, Arroitz, Artaza (kanpinaren alboan), Aiegi, Berriozar, Cascante, Ekai-Longida, Faltzes, Legarda, Martzilla, Erriberri, Orreaga, Tafalla, Tutera, Uharte-Arakil, Viana, Atarrabia eta Zubiri-Saigots. Eskaintzen dituzten zerbitzuak (ur grisak´ ateratzea, gualdia...) ondorengo webgunean topa daitezke:

[http://www.areasac.es/v\\_portal/busqueda/index.asp?te=4#resul](http://www.areasac.es/v_portal/busqueda/index.asp?te=4#resul).